

Euskal literatura egonaldia – 2014 DEIALDIA
« NEKATOENEA » baserrian – ABBADIako EREMUA HENDAIA

Laugarren aldikoz, Euskal Kultur Erakundeak, Hogei'ta labelaren kari, Euskal Itsasbazterreko CPIEk eta Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) beren baliabideak eta gaitasunak bateratzen dituzte gazte literatura egonaldi baten antolatzeko 2014an, Hendaian. Egonaldia euskal idazle guziei zuzentzen zaie.

AURKEZPEN EPEAren BUKAERA : 2014ko apirilaren 28a

TOKIA : Nekatoenea – Abbadia Eremua - 64700 HENDAIA

DATA : 2014ko urria-azaroa

IRAUPENA : hilabete bat

ARTISTARI EMAN BEKA : 1000 €

Artistaren aterbetzea

Tailer-apartamendu bat artistaren esku ezarria izanen da hilabete baterako Hendaiko Abbadiako Eremuan, « Nekatoenea » deitzen den etxean.

"Nekatoenea" Abadiako Eremua babestuan izanik, idazleak beharko ditu bertako arauak kontutan izan (bizikleta eta zakurrak debekatua, parkinga 700 m.tara).

Ekoizpen eta balorazio baldintzak

Egitasmoak bi zati ukanen ditu, eta ondokoak beharko dira ongi errespetatu :

1-Gazte literatura sorkuntza (hilabete batez), Hendaiko "Nekatoenea" etxean.

Artistaren esku utziko da ekoizpen motaren eta lan gaien hautua, kontuan harturik literatura sorkuntza euskaraz eginen dela. Hala ere, sorkuntzak oihartzun egin beharko dio Euskal Kultur Erakundearen ["Hogei'ta" deitu urte anitzeko programa berriari](#). Programa horren xedea euskal kulturaren aniztasun osoa baloratzen duten proiektu berritzaileak gazteengan eta gazteekin sustatzea da.

2- Ikasle gazteekin jarduera bat

12 urtetik gorako ikasle talde batekin. Idazleak bere idazlanari buruz proposatu nahi duen lana. Ikasturte hasieran hitzartuko du irakaslearekin eta 2014-2015 ikasturte bitartean antolatuko du ikasleekin 12 orduz elkartuz. Jarduera honek Hego Lapurdiko Hirigune eta DRACeko EAC programaren barnean izanen da horien finantzaketa berezia izanik.

Hautaketa

Epaimahai batek du hautua eginen, hautagaitza txostenak aztertu ondoren. Partaide egitura bakoitzak ordezkari bat izendatuko duelarik epaimahaian parte hartzeko.

Txostenak (egitasmoa, CVa, erreferentzia literarioak, etabar) hiru helbide hauetara igor daitezke, edo mailez, edo postaz, 2014.eko apirilaren 28a baino lehen:

- EUSKAL ITSASBAZTERREKO CPIE (Aintzane Lasarte)
www.nekatoenea.eu - cpilittoralbasque.sorkuntza@hendaye.com
Larretxea, rue Armatonde karrika, 64700 Hendaia
Tel. (0033) 559 20 37 20
- EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA – EIE
Euskal Idazleen Elkartea • Zemoria kalea, 25 • 20013 Donostia (Gipuzkoa)
www.idazleak.org, eie@idazleak.org - Tel : (0034) 943 27 69 99
- EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA – EKE
www.eke.org, etchegoin@eke.org - Lota jauregia - 64480 Uztaritze Tel. (0033) 559 93 25 25

Emaitzak

Erabakia hartu eta aste batera hautagai guziei e-postaz igorriko zaie erantzuna.